

EGUBERRIAK

Esanahia eta ohiturak

I

EGUBERRI JAIEN eta EPIFANIAREN SORRERA

Eguberriak

336. urtekoa da *Natalis Domini* izeneko jaia Erroman ospatzeari buruzko lehen notizia. Dirudienez, 336ko abenduaren 25ean Jaunaren jaiotza ospatu zen Erroman, Julio I.a aita santu zela. IV. mendean barna, bai mendebaldeko, bai ekialdeko eliza guztietara zabaldu zen Jaunaren jaiotza –*Natalis Domini*– ospatzeko jaia.

Abenduaren 25a hartu zuten kristauak gertakari hori ospatzeko. Izan ere, Erroman *natalis solis invicti* ospatu ohi zuten egun horretan, 270 eta 275 urte bitartean enperadore izan zen Aurelianoak jai hori eratu zuenez geroztik. Ziur aski, Europa osoan, Erromaren menpe zeuden herrietan batik bat, ospatu ohi ziren neguan, neguko solstizioan –egunak laburren direnean–, halako jaiak, *Saturnalak* deituak, eguzkiaren indarberritzea dela eta. Euskal Herrian duen izenak –*eguberri*, *eguzkiberri*– horixe adierazi nahi du, noski. Ez ziren egun bateko jaiak, egun askoz luzatzen baitzituzten. Alde batetik, *Saturno* jainkoari, lur-langintzaren jainkoari, eskainiak ziren, horrela, hila zegoen naturari birjaiotzera dei egiten ziotelarik. Beste aldetik, berriz, eguzkiaren indarberritzeari ere eskaini ohi zizkioten jai hauek.

Jai handiak izaten omen ziren hiri eta herrietan, gaurko inauterien antzekoak. Inauteriak ere, lo dagoen izadia iratzartzeko, esnarazteko, jaiak omen dira, jatorriz: joale edo zintzarriak joz esnarazi nahi da izadia (*Nafarroako ttuntturroak*, *adib.*) Dantza eginez, kantatuz, su handiak piztuz, buztinezko panpinak elkarri emanez, *Strenia* jainkosaren omenez bildutako adarrak elkarri eskainiz... ospatzen omen zituzten saturnalak eta solstizio-jaiak. Inauterietan gertatu ohi zen bezala, nagusiek zerbitzatzen zituzten esklaboak, eta esklaboek nagusiekin jaten zuten mahai berean. Saturnalen ondoren, *Janus* jainkoari eskainitako jaiak zetozen, urteberriko jaiak.

Gogo onez hartu zuten kristauak Jaunaren –*egiazko Eguzki Menderaezinaren* (ik. *Ml 3,20; Lk 1,78*)– jaiotza egun horretan ospatzea: *natalis*, *nativitas Domini*. Jentilen jaia kristautzeko ez ezik, gnostikoen eta arrianoen irakaspenak deuseztatzeko ere bai (*haiek ziotenez, bataiokoan hartu omen zuen Jainkoak Jesus bere Semetzat*). 325ean Nizeako kontzilioak esan zuena baietsi eta aitortu nahi zuten Eguberri Jai horietan: Jesus, Jainkoaren Semea, "*Aitarene izate berekoa (consubstantiali Patri)*" dela. III. mendean azken aldekoa den "*De solstitiis et aequinoctiis*" liburuak dionez, Kristo da Eguzki Garaile –*Invictus*– bakarra.

Epifania

Epifania Jaia ekialdean sortua da, Jaunaren jaiotza/agertzea ospatzeko. Gnostikoen, II. mendean, urtarrilaren 6an Kristoren bataioa ospatu ohi zuten. Baina Epifania-jaiari buruzko lehen notiziak IV. mendean erdialdekoak dira, Salaminako San Epifaniok gutun batean emanak. Honek dioenez, urtarrilaren 6an *Kore* jainkosa birjinaren seme *Aaion* jainkoaren jaiotza ospatu ohi zuten Egipton eta Arabian, egun-argiaren luzatzearekin loturik –*Erroman abenduaren 25ean egin ohi zuten jaiaren antzekoa, alegia. Bi jai hauek, beraz, "argiaren jaiak" ziren jentilentzat*–. Pliniok, Epifaniok eta San Joan Krisostomok diotenez, urtarrilaren 5ean gauza harrigarriak gertatu ohi ziren: iturrietako urak ardo bihurtu, egun horretan hartutako ura txartzten ez... Kristauak Jaunaren jaiotza ospatzen zuten Egipton (Alexandrian) urtarrilaren 6an. Garai hartan, bestalde, *epifania edo agerkunde* hitzak, *adventus* edo *etorrera* hitzak bezala, enperadorearen etorrera/agertzea adierazten zuen.

Bi jai hauek aldi beretsuan hedatu ziren mendebalde eta ekialdeko Eliza gehienetara. Galiara, adibidez, beste inora baino lehen –Natibitate Jaia bera ere baino lehen– heldu zen Epifania jaia, 384ean. Hispaniara 400. urtean eta geroago Erromara. 567-578 urteez geroztik, bi jaiak ospatu ohi dira kristau Eliza guztietan. Urteen joanean, Epifania Jaia nagusiki Jaunaren agerkunde edo manifestazioa ospatzekoa izango zen, jai honetan hiru agerkunde bilduz: herri guztiei agertzea (magoen aurrean), Israel herriari agertzea (bataiokoan) eta ikasleei agertzea (Kanako ezteietan). Eguberrialdiko gainerako jaiak geroztik sortuak dira; batzuk berriki: Familia Santuaren jaia 1921ean, eta Jaunaren Bataioaren jaia –*lehen urtarrilaren 13an ospatua*– 1960an.

II

EGUBERRIKO GERTAKARIAREN ESANAHI TEOLOGIKOA

Joan ebanjelariak Jesusen honako hitz hauetan laburbiltzen du salbamen-gertakari edo misterioa: *Aitarengandik atera nintzen eta mundura etorri; orain mundua utzi eta berriro Aitarengana noa* (Jn 16, 28). Gertakari honetan bi mugimendu ikus dezakegu:

1. Kristo beheratzea –*kenosia*–, gizakunde edo inkarnazioan hasi eta gurutzean burutua. Jainkoaren Semea, giza izatea harturik, gure artean jaiotzea eta agertzea ospatzeko jaiak dira Eguberriak.
2. Jesus Aitarengana itzultzea, igotzea, bere aintzan –*doxa*– sartzeko (Lk 24, 26). Gertakari hau igandero eta, bereziki, Pazkotan ospatu ohi du kristau-elkarteak.

Eguberri-eguneko ospakuntzan, Jesus jaio zeneko gau miresgarri hartan bezala, Jainko ikusezina “ikuskor” egiten da, sakramentalki baina egiaz (*Sacramentum natalis Domini* esaten dio San Leon Handiak Eguberri-egunari): **Jainkoak, Jesusengan gure izate hilkorra hartzean, gu berekin adiskidetzen gaitu, gu bere izate hilezkorrean partaide egiten gaitu.** “*Elkarri emate edo harreman miresgarria*” deritza gertakari honi Eguberriko III. Prefazioak. Haurrari jarriko zioten izenak ere misterio hau ematen du aditzera: *Iexua*, Jainkoa salbatzaile. Horregatik, kristau fededunak Haur horrengan *Soter* edo Salbatzailea, *Mexiah/Kristo* edo Gantzutua eta *Kyrios* edo Jauna ikusten du (ik. Lk 2, 11), baita *Basileus* edo Erregea ere (ik. Mt 2, 2).

Eguberriko zortziurrena eta Andre Maria Jainkoaren Amaren jaia: Pazko-eguna zortzi egunez luzatu ohi dugun bezala, Eguberri-eguna ere zortzi egunez luzatzen dugu, irakurgaien laguntzaz misterio handia kontenplatu eta hausnartu ahal izateko. Eta **zortzigarren egunean Andre Maria Jainkoaren Ama** (*Theotokos*) goraipatzen du kristau-elkarteak VI. mendean geroztik (Erroman VIII. mendean geroztik). Andre Mariari izen miresgarri hori ematean, **Mariaren Semearen jainko-izatea** aitortu eta oihukatu nahi du kristau-elkarteak.

III

EGUBERRITAKO ZENBAIT OHITURA EUSKAL HERRIAN

Jose Migel Barandiaran jaunak eta Resurrección M^a Azkue jaunak bildu eta argitaratutako materialetatik hartuak ditut ondoko ohitura eta errito gehienen berriak.

Eguberri: egun berri, eguzki berri

Erroman eta Europako herri askotan bezala, Euskal Herrian ere neguko solstizioan – eguzkia kaprikornio tropikoan sartzean– egun-argiak gau-iluna menderatzen hastea, eguna luzatzen eta gaua laburtzen hastea, ohitura bereziak betez “ospatu” ohi zuten, dirudienez. Jai hauen izenik zaharrenak hori ematen du aditzera: **eguberriak**. “*Gabonak*” izena berriagoa da eta “*Gabon Gau*”etik dator. Eguberri-egunari *Natibitate* ere deitu ohi zaio, Jesusen jaiotza aipatzeko latinez erabili ohi den izena: *Nativitas Domini*.

“Eguberri” izenarekin batera “*urteberri*” ere badugu. Historialariek diotenez, XI. eta XV. mende bitartean eguberri-egunez hasi ohi zuten urtea, 1180an Tarragonako kontzilioak hartu zuen erabakiari jarraituz. Horregatik, apika, eguberri-egunaren inguruan eta urteberri-egunaren inguruan ohitura edo erritual beretsuak bete izan dira.

Erritoak egiteko osagaiak: enborra, sua eta ur berria

Ohitura erritual horien artean, honako hiru hauek aipatzeko ditugu:

Enborra: San Joanetan –ekainean, udako solstizioan, alegia– zuhaitz-adar sakratuak jartzen diren bezala, eguberri bezperan, Gabon Gauean, enbor berezia eman ohi zioten suari. *Subila, supila, xiula* edota *Olentzero-enborra* zeritzan enbor hari. Gabon Gaueatik urteberri-eguna arte egon behar zuen sutan. Zuberoan, Araban eta Nafarroan izaten omen ziren, gehienbat, enborraren inguruko erritoak: *Xuilaro, Xiularo, Sunbilaro, Sukaro* eta horrelako hitzak erabili ohi zituzten. Uharteko hurrek, eskeko kantu hau abesten zuten:

Xiularo, laro-eguna
haurren barur-eguna,
zazpi izar ielgu eta
haurren askal-orena.

Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait herritan ere bere izenak ematen zieten enborraren inguruko erritoei: Oiartzunen *Olentzero-enbor*, Larraunen *Olentzaro-mukur*, Antzuolan *Gabon-ubil*, Aezkoan *Subilaro-egur*, Bedian *Gabon-mukur*, Zegaman *Gabon-zuzi*, Liginagan *sukubela*. Orixek bere poeman *bazter-egur* esaten dio. Eskirotzen hiru enbor botatzen omen zioten suari: bata jainkoarentzat, bigarrena Ama Birjinarentzat eta hirugarrena etxekoentzat.

Erre gabe gelditzen den enbor-zatiak, Eguberrian sutan egona delako, indar berezia du gaitzak uxatzeko. Horregatik, gorde egin ohi zuten hurrengo Eguberriak arte, baita haren errautsak ere, abereen gaitzak uxatzen zituelako. Soro edo alorretan ere zabaldu ohi zuten, xomorroak suntsitzeko.

Sua: Enborra eta sua, biak ala biak “sakratu” ziren Gabon Gauean eta Eguberrian. Sua, bereziki, eguzki amandrearen irudi delarik, indar berezia duelako, eta enborra, su egiteko beharrezkoa delako.

Ur berria: Gabon Gauean ez, baina urteberri-gauerdian bai, erritual berezia bete ohi da urarekin. Urdiainen, adibidez, Gabon Zahar gauerdian iturrira atera ohi dira gazteak pegarra edo pitxerra eramanez, ura –“*ur berria*”– hartzeko. Ur hori etxez etxe banatu ohi dute, aginaldo edo

gabonsaria –“urtatsa”, urte-hasierako saria– eskatuz. Hala, adibidez, Nafarroako Urdiain herrian. Etxekoek ur berria edan behar dute, osasuna hartzeko, koplak dioen bezala:

Ur goiena, ur barrena, urteberri egun ona, urteberri egun ona, baita guk ere umore ona.	Ur goiena, ur barrena, pakearekin osasuna, onarekin ondasuna. Jainkoak deizuela egun ona.
--	--

Zegaman, aspaldi, urteberri-egunsentian, kanpoko iturrira ateratzen omen zen etxeo amona eta, ur-suila urez beterik, etxera itzultzean, atea jo eta, honako elkarrizketa hau izaten omen zuen etxeoekin:

Etxekoek:	“Nor da?”
Amonak:	“Ni naiz”
Etxekoek:	“Zer dakartzu?”
Amonak:	“Ur berria, urarekin osasuna eta pakia. Ireki ezazu ataria”.

Etxean sarturik, sukaldeko mahai biribilaren inguruan denak jarririk, baso urte bana ematen omen zien etxekoei, eta bitartean hau kantatuz:

Ur barrena, ur goiena,
Jainkoak dakarren urteberri ona.
Osasuna ta pakea.
Ireki zazu atea.

Eta etxeoek, ur berri hartatik edanez, beste hau kantatzen omen zuten:

Hasiera eder bat
dantzan da kantari, bai,
eman behar diogu
urte berriari, bai.

Eguberri-jaien igarlea: Olentzero

Pertsonaia mitologiko batek iragartzen eta irudikatzen ditu eguberriak: **Olentzero** deritzan pertsonaiak (urte zaharra *Kalorre* deritzanak edota inauteriak *Zanpantzar* deritzan pertsonaiak irudikatzen duen bezala). Ipuinen batek omen dioenez, Kristo jaio zenean desagertu edo galdu ziren *jentilak* –gure arbaso paganoak–. Haietako bat, ordea, “*Jesus jaio zela aditu zuenean, lasterka etorri zen parte ematera*”. Hala dio Gabon-kantak. Olentzero ikazkina da, hau da, egurrarekin eta suarekin lotura berezia duen irudia, eguberri-jaien igarlea, pregoilaria.

Barandiaranek jasotako ipuin batek dio jentila zela Olentzero, eta jentilen artean hau esan ohi zutela: “Laino zuri-zuri bat ikustean, seinale ‘Kixmi’ jaio dela”. Kristori deitzen omen zioten jentilek “Kixmi”. Biblian, Apokalipsia liburuan, igarpen hau dator: *Hodei zuri bat ikusi nuen, eta hodei gainean gizaseme antzeko norbait eseria* (Ap 14, 14). Horregatik dio koplak:

Aditu duenian Jesus jaio dela,
lasterka etorri da parte ematera.

Olentzeroren irudia bizkarrean harturik, kalez kale eta baserriz baserri ibiliz, eguberrien etorrera eta Jesusen jaiotza iragartzen dute abeslari-taldeek, lehenago, abenduaren 6an, San Nikolas apezpikuarekin egina duten bezala eta, gerora, Santa Agedatan egingo duten bezala.

Zenbait ipuinek eta mitok dioenez, tximinian behera sartu ohi da Olentzero etxeetan, etxeoak lotaratu ondoren, Olentzero-enborraren sutan berotzera. Ipuinen batzuek diotenez,

sukaldea garbi ez badago, lepoa mozten omen die etxekoei. Baserri batzuetan laratzetik zintzilik jarri ohi zuten Olentzeroren irudia garai batean.

“*Olentzero*” izena era ezberdinetan esan ohi zen tokian-tokian: *Olentzaro*, *Olentzaro*, *Orentzago*... Izen hori “*onen aro*”tik datorkeela uste dute batzuek; baina gehienek diotenez, “*Olen*” errotik dator: Olen-aro. Eta honek, berriz, “O” antifonen aro edo denbora adieraziko luke, Eguberri edo Natibitate aurreko zortzi egunetan, Bezperak deritzan otoitz-orduan kantatu ohi diren “O” hitzez hasitako antifonak –*O Sapientia*, *O Radix Jesse*, etab.– kontuan harturik. “*Noel*” izena ere hortik letorke.

Lastozko irudia jantzi eta, anda gainean harturik, kalez kale ibili ohi dute lagun-taldeek, Gabon-egun edo “*Olentzero-egun*” ilunabarrean eskea eginez. Izan ere, eguberri-jaia iragartzen duenez, jendeak eman behar du zerbait Olentzerorentzat (*Olentzeroren eramaileentzat*, noski) biharamuneko otordurako, koplak dioen bezala:

Olentzero guria ezin degu ase,
bakarrik jan dizkigu hamar txerri gazte,
saiheski ta solomo, makina bat heste.
Jesus jaio da eta, kotsola zaitezte.

Zenbait lekutan irudi horri beste izen batzuk ere eman ohi zizkioten. Araban, adibidez, Subilaro edo Kalerre, Putierre. Eta Gabon Zaharretan ateratzen zuten. Donostian ere, garai batean, Gabon Zaharretan ateratzen zuten Olentzero, hau kantatuz:

Olentzero, begi-gorri,
nun harrapatu dek arrai hori?
Zurriolako arroketan,
bart arratseko hamaiketan.

Azken urte hauetan, emakume baten irudia erantsi dio Olentzerori: *Mari Domingi*. Izen hau ez da inongo kontara, ipuin edota erritotan aipatzen ere. Gabon-kanta batek ateratzen du emakumearen irudi hori, honela:

Horra *Mari Domingi*, begira horri,
gurekin nahi duela Belena etorri.
Gurekin nahi badezu Belena etorri,
atera beharko dezu gona zahar hori.
Atoz, atoz, zure bila nebilen ni,
atoz, atoz, zure bila nebilen ni.
Atoz, goazen, adora dezagun
Belenen jaio dan Haur eder hori,
Haur eder hori.

Eskerako kantuak

Halako jaiak koplaz eta kantuz iragartzen dituztenei saria, gabonsaria, zor zaie, eginkizun garrantzitsua betetzen dutelako. Oso ugaria eta aberatsa da eskerako koplak eta kantuen multzoa, nola Eguberriarako hala Santa Agedatarako. Hona hemen bakarren batzuk:

Dios te salve, ongi etorri, gabon Jainkuak diela, legearekin kunpli dezagun Urteberriren bezpera. (<i>Oiartzunen bildua</i>)	Etxetxo txiki honetan jotzen det atia, ireki, ahal badeza, amandre neria. Atez ate bila nabil ni, atez ate bila nabil ni. Atoz, goazen adora dezagun Belenen jaio dan Haur eder hori, Haur eder hori. (<i>Zumaian, M^a Luisa Sagastiri jaso</i>)
--	---

Eguberri-kantak

Kristau herriak kantuz adierazi eta goraiatu ohi du Eguberritan ospatzen den gertakaria: Jesusen etorrera eta jaiotza.

Hiru motatakoak dira Euskal Herrian zabalduenak:

a) “Marijesiak”: Maria, Jesus eta Jose errepikatzen dutelako horrela deituak. XVI. mendekoak izan daitezke eta Bermeoko frantziskotarren komentuan sortuak:

Abendu santu honetan Kristoren jaiotzian, kontentuaren haundiz guztiok poz gaitian.	Eguzki dibinala gabaren gaberdian etorri zan mundura gizonan jantzian.	Txit gau ditxosua dogu Egubarri, zergatikan da Jesus gugana etorri.
Maria y Jose, Jose eta Maria, Maria y Jose.	Maria y Jose, Jose eta Maria Maria y Jose.	Jesucristo! Ay, qué bonito Niño, Jesucristo!

Edo Zumaian jaso den beste hau:

Gaur dala jaio, jaio / gaur dala jaiotzia¹,
Semia jaio da ta, /ama dala dontzeilia.
Maria, Jesus, / Jesus, Maria, / Maria, Jesus.

b) “Noelak”: Joannes Etxeberrik 1631an “Noelak” deritzan liburuan argitaratu zituen batzuk. Noelak Iparraldean sortuak dira eta gero batzuk Euskal Herri osora hedatu ziren:

Oi Eguberri-gaua,
bozkariozko gaua,
alegeratzen duzu
bihotzean kristaua.

Mundu guzia duzu
zorionez betetzen,
zeren zuk baitiozu
Salbatzailea ekartzen.

Beste zenbait best:

Oi Bethlehem,
ala egun zure loria,
oi Bethlehem!
Ongi baitu distiraten
zugandik heldu den argiak
betetzen ttu bazter guztiak.
Oi Bethlehem!
Oi Bethlehem! (*Cesar Franck-en doinuan oinarritua*)

¹ Maria Luisa Sagasti Aizpuruak 1967an grabatua

Kristo guziek dezagun egun adora!

Hauxe da izarra agertzen dena,
berri bat dakarte eman diena:
Jesus maitearen sortzearena.
Hirur erregeak ditu gidatzen,
presentekin dute gaur adoratzten.

c) *“Artzain-kantak”*: *villancico* deituak dira, *villano*-en kantak. Jesusen jaiotza aipatuz artzain batek jalkiko lituzkeen hitzak eta sentipenak adierazten dituzte. Manuel Lekuona apaizak Aiako Laurgainen aurkitutako 1705eko partitura batean honako hauek datoz, beste batzuen artean:

Eder dek olaan gabia, larre onean ardia.	Belengo portalepean Omen zeagok Jaungoikoa, hura ekusten han omen dek
Nafar baino hobe diagu Zaragozako zuria.	Paskoal gure aldekoa.

Edo Resurrección M^a Azkuek Elgoibarko Altzolan jasotako beste hauek:

Ai, hau gabaren preziosua Jesus jaio de Belenen, etxe honetan sartu ote dan bila gabiltza beraren.	Erdiok gara olagizonak beste erdiak harotzak. Limosnatxo bat egitekotzat bigundu begiz bihotzak.	Belaunbikoka jua ginaden Nazaretikan Belena, geuk adoratu behar gendula Jesus Maixua lenena.
---	---	---

Gabon Gauerdiko Meza

Hiru gau ditu bereziak kristau-elkarteak: Pazko Gaua, Pentekoste Gaua eta Gabon Gaua. Parrokia eta eliza gehienetan ospatu ohi zen Gabon Gauerdiko Meza, San Lukasen testua ebanjelioan irakurriz (Lk 2, 1-20). Urrutien zeuden baserrietatik eta jaitsi ohi ziren eliztarrak, gauerdiko ospakizun argitsu horretara. Zenbait kantutan jaso dago ohitura eder hori. Adibidez, Lapurdiko honetan:

Atzar gaiten, atzar lotarik,
gau huntan de Jesus sortzen,
amodioak garraiturik,
guregatik da etortzen,
guregatik da etortzen.

Jaiotza eta zuhaitza

Zabaldua dago Euskal Herriko eliza, etxe, denda eta zenbait lorategitan *“jaiotza”* jartzeko ohitura ere. 1223ko abenduaren 24an, gauerdian, Greccio-ko leize-zulo batean zurezko irudi batzuk –Jesus, Maria eta Jose irudikatuz– ipini zituen Asisko San Frantziskok, eta astoa eta idia eraman zituen. Han eukaristia ospatu zuten. Handik dator *“jaiotza”* ipintzeko ohitura ederra.

“Eguberriko zuhaitza” ipini eta apaintzeko ohitura, berriz, Alsaziatik omen dator. 1605ean izei-arbola ipini zuten elizetan, paradisuako arbolaren oroigarri. Urte-saso horretan berde dagoen arbola ia bakarra delako aukeratu omen zuten izei edo abeto-zuhaitza. Paradisuko zuhaitzaren oroigarri da, horregatik sagar-aleak eseki ohi dituzten haren adarretatik. Baita argitxoak ere. Biziazen irudi ere bada da zuhaitza: heriotza menderaturik, betieran bizi den Kristo piztuaren irudi.

Jesus M^a Arrieta Sagastik

*Errenterian, 1967ko abenduan
Tolosan, 1973ko abenduan
2024-12-17an osatua*